

# OAR LABURRAK

## I

### LEIOTIK BEGIRA

Ixilik potzu mutua, urraren kerizpetan.  
Zidar eta berde kolore illuna, dizdizka.  
Gai egokia, laukoa pintatzen asteko.

Urraren ganetik, negu-sartuan dagon makatz zar arrotu batek erakusten ditu adar igertuak. Makatz aundi-aundia da. Bai, makatz-erraldoia. Inñun be eztoz ikusi onelako makatz-tantairik. Agatx lodi baten neurriko mukurra eukingo dau, bai. "Madari makatza" esaten deutsagu guk. "Pozuen ondoko madari-makatza". "Pozuen ondoko madari makatz aundia". Onelan deitu bear, txikia be ezta ta.

Gari-soloak. Landa berdeak. Makaztoi bat, Kerizak. Ikuek.

Eriontza bat gari-solo ertzean. Or gordetan dira inguruko zozoak.

Menditxo zabal bat, piñudoï eta agatztoi basoez beterik.

Atx-tontor aundi batek erakusten dau bere gangar urtena menditxo orren ganetik. Sorgiñen atx-tontorra oñeztarri ta tromoia dabil-tzan egun illunetan. Zidarrezko tontor-gangarra eguzki egunetan.

Zeru urdiña, laño errastu barik.

Sai zar aundi bi dabiltzaz jirabiraka, ixilik, zeru baketsuko aidea ebagiten.

Pintore gazte bat dago potzu ondoan pintetan.

Erropa-garbitzen andra bat, potzuan.

Lora-batzen umetxo bat eta katakumatxo baltz bat arrapatu gurarik, ariñeketan.

Pozik txoriak txiu-txiuka urraren adarretan.

Kardantxillo-kumakin abiatxo bat, madari-makatz aundian.

Burdien txirrijuak datoz mendiko basoetatik. Baserritarren aidakadak be bai.

Eguberdia.

Amabietako kanpaiak elizako kanpantorrean.

## II

### LEIORA BEGIRA, ARRATSALDE EURITSUA

Domekia gaur, eta goizean goizetik asi-ta auri faltarik eztaukagu emon guztian.

Itxasoko ondartzan iñor be ez, baña bete-beteta zine-gelak.

Otzitu egin dau denporia.

Gaztetu egin dira gaur kanpuek. Garien euri-oritasun koloreak indartsu erakusten dabe euren eldutasuna. Urregorri antzeko ixarea dala emoten dau basoen berde-kolore berdintsuak, inguruko gordezaille egiten deutoela.

Aizeak indarragaz bultzetan dauz baso-ertzeko platanu-arbolak.

Itxasotik datorren aizeboladak makurtzen ditu noiz beinka Uda-goieneko lelengo olerkari onek.

Arimarik be ez auzoko kaleetan.

Aizea bakarrik, txistuka. Auritantakak eta auritantakak leioaren aurrean, gelditu barik, eta atertzeko etxuraik be ez.

An, bere gelan dago Nils, Werkare irakurtzen.

Bide ederra, dinamarkaar artisteak erakusten deutson bizitzea.

“Larritasunetik Jaungoikoagana”, Baso-baltzeko Beneditarren komentuko fraide-gela paketsuan egiñiko liburua, benetan da irakur-garria.

A!... Baña Nils'ek ogei ta bat urte bakarrik daukoz, eta gudari da.

Beste bost udabarri daukoz oraindiño ondo pentsetako.

## III

### ZERURA BEGIRA, IZAR BARRI BAT AGERTU

Illusentia. Udabarriko illuntzi ixilla.

Loratetik landara jaiobarrieci egarria kentzeko urez bustitzen nabil.

Izarrez bete da zerua, astiro astiro.

Alakon batean eta bat-batean, izar barri bat agertu da. Izar barri bat? Taupada bat emon deuste biotzak.

Tirriñ... tirriñ... Telefonua deika.

—Zuretzako da, Erritik deitzen deutsue.

—¿...?

—Aita il da.

—¿...?

—Ordulauren bat dala.

Irun'en, 1964-Udaran.

MARKUE.